

BALEIKE

275. ZENBAKIA ERROBAT
2018ko APIRILA

www.baleike.eus

PENTSIODUNEN ALDARRIA



32"

Smart TV

349€

KDL32WE610

32"

Smart TV

Full HD

399€

KDL32WE750

Itzuli da
SONY

Ordaindu
12
hilabetean
interesik gabe!

Smart TV

Full HD

40"

499€

49"

569€

KDL40WE660
KDL49WE660

Smart TV

4K

43"

639€

49"

679€

KD43XE7096
KD49XE7096



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com



Juan Luis Romatet



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odrizola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta, Miren Osa, Sara Ibarguren eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

5

baleike +

“DUINTASUNA IPAR, PENTSIODUNAK BORROKARAKO PREST DIRA”

13

iruditan
ITSASOA
ESKALA TXIKIAN

18

erreportajea
HARITZ JIMENEZ

25

erretratua
GRAXIAN
GALARRAGA

30

agenda
APIRILA ETA MAIATZA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

kutxabank
hemen
eta orain **k**



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea
Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152

LIBRURUA

AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

D E N D A

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide


ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel. 943 862 532

Arotzategia: Santiago, 40 Tel. 943 861 631

BALEIKE



OKINDEGIA
Artxupe

ZUMAILA

OGI-EDER



Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAILA (GIPUZKOA)



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakur

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 Tel./fax: 943 148 306
20749 Arroa bakur@euskalnet.net



Basodi
albaitaritza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basodi.net
www.basodivet.com

Golez: 11-13 / Arratsalde: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Lamiakelareko: 605 728 737 Etkez ebeko zerbitzua



BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Ebezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Katetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

“Duintasuna ipar, pentsiodunak **borrokarako prest** dira”

BALEIKE +

TESTUA: JOSE CASTILLO
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA
ETA JUAN LUIS ROMATET

Haserreak eztanda egin eta pentsiodunak kalera irten dira pentsio duinen alde. Bizitzaren kostuaren igoerak eta pentsioen % 0,25eko igoera eskasak eraman ditu kalera. Zumaian bi hilabete daramatzate protestan, Ixabel Dorronsoro eta Xegundo Manterola pentsiodunek ere bai, tartean.



2007an lehertu zen krisi finantzarioa Estatu Batuetako banku sistemaren bihotzean, Wall Street-en, eta urtebete geroago Europara hedatu zen, zorraren krisi bihurtuta. Kapitalismoaren krisi ziklikoetan, beste bat. Orduetik, langabeziaren gorakada, lan prekarioa nagusitzea, murrizketak sektore publikoan eta, nola ez, pentsioak murriztea edo izoztea bizi izan ditugu. Kaleko giroak, ordea, ez zuen islatzen azkenaldian atzeraldi historiko horrek merezi adinako erantzunik. Pentsiodunek, urtarril hasieran, ahotsa altxa eta kaleak hartu zituzten arte. Bost urte dira jada pentsioak legeak ezarritako % 0,25 baino ez direla igotzen; bizitzaren kostuak, berriz, nabarmen gora egin du. Egoera horrek Euskal Herriko eta espainiar Estatu guztiko pentsiodunak atera ditu kalera. Lurrikara horrek ere izan du Zumaian oihartzuna, astelehenero udaletxe aurrean pentsiodunen talde bat biltzen baita pentsio duinen aldeko borrokan.

Pentsiodun horietako bi dira Ixabel Dorronsoro eta Xegundo Manterola erretiratuak. Zumaiaiko mobilizazioak era nahiko espontaneoan hasi zirela nabarmendu dute biek, WhatsApp bidez edo ahoz aho zabalduz elkarretaratzeak. “Hasierako protestan dozena bat lagun inguru baino ez ginen biltzen udaletxe aurrean, baina jubilatuen artean deia zabalduz joan ginen, eta gaur egun nahiko kontzentrazio jendetsuak egiten ditugu”, azaldu du Manterolak. Izan ere, bizitza guztia lanean eman ondoren, biek nabarmendu dute ez daudela prest beren bizi kalitateak nola jaitzen jarraitzen duen ikusteko, eta borroka jarraituko duela azpimarratu: “Jendea jada erreta dago eta kontzientziazten ari da bizi dugun egoeraz, badakigu aurrean dugun borroka gogorra izango dela, baina gure belaunaldiak borroka asko egin du eta hau ere amaieraraino eramateko prest gaude”.

Non ote da dirua?

Espainiako Gizarte Segurantzaren defizit egoeran dago 2011. urtetik, hau da, haren diru gastuak, pentsioen ordainketa barne, sarrerak baino handiagoak dira. Gainera, lanpostuak berreskuratzen joan badira ere, espainiar Estatuak ezin izan dio buelta eman egoera honi. Horren ondorioz, Estatuak pentsioak ordaintzen direla ziurtatzeko erreserba funtsera, herritarrok “pentsioen itsulapiko” izenarekin ezagutzen dugunera, jo behar izaten du. Pentsiodunek, Manterolak eta

Dorronsorok azaldu bezala, Fatima Bañez Espainiako lan ministroaren eskutitz bat jaso zuten urte hasieran, eta han adierazten zien egoera defizitarioa bada ere, pentsioak % 0,25 igo direla eta Espainiako Gobernuak ahalik eta esfortzu



I. Dorronsoro: “Gure oihuak oraingoz Gobernuaren aurkakoak dira, baina badakigu atzean sistema kapitalistaren logika dagoela”

handiena ari dela egiten. Hala ere, pentsiodunak ez daude ados iritzirik horrekin; izan ere, azken bost urteetan bizitzaren kostuak gora egin du eta beraien pentsioak legezko gutxienekoa baino ez dira igo. “Adar jotze hutsa da esatea pentsioak igo direla, bizitzaren kostua, horiekin alderatuta, bikoitza baino gehiago hazi denean. Sekulako amorrua sentitu nuen Fatima Bañezen eskutitz hori irakurtzean”, azaldu du Manterolak.

Bestalde, Dorronsorok argi du Estatuaren defizit egoeran bada ere, Estatuak bere gastuak “ongizate komunaren” alde ongi kudeatuz gero, badela nahikoa diru pentsio duinak bermatzeko: “Administrazioaren lehen helburuak izan beharko luke dirua herritarren ongizatearen alde ahalik eta eraginkorren kudeatzea, eta ez izugarriko obretan edo armamentuan gastatzea”. Diru kudeatzeko lehentasunei jarraiki, Manterolak Espainiako banku sistemaren erreskattea oroitzen du pentsio eta gainerako zerbitzu publikoak finantzatu ahal izateko diru galdu gisa. “Atzeraldi historiko bat bizi dugu, alor guztietan bizi ditugu murrizketak, urte luzeetako borrokan ondoren lortutako zerbitzuetan, gainera. Baina, bestalde, orain dela gutxi jakin dugu bankuak erreskatatzeko inbertitutako diru guztiak gehiago galduko direla”, nabarmendu du Manterolak.

Bizi kalitateak behera nola egiten duen ikusten dute bi pentsiodunek. Hala ere, izandako lanpostuari esker, aitortu dute oraindik ere bizi maila duina ziurtatzen dieten pentsioak jasotzen dituzte. Bereziki, Manterolak nabarmendu du burdinaren industrian urte luzez soldata onak izan eta gero pentsio nahiko altua duela. Arazoa, Manterolaren ustetaz, beheranzko joera amaigabea da. “Nik, gaur egun, ongi bizitzeko moduko pentsioa dut, baina egoerak horrela jarraituz gero, hemendik bost edo zazpi urtera, ezin izango dut berdina esan”, aitortu du. Egun, Hego Euskal Herriko gizonezko pentsiodunek batez beste, 1.434 euroko pentsioa jasotzen dute, eta 825 eurokoa emakumezkoek.

Arazo ekonomikoaz gain, pentsioen bermeak afera demografikoa ere aurka du, eta horrela nabarmentzen dute bi



ELKARRETARATZEAK

Zumaiaiko pentsiodunak astelehenero ari dira elkartzen udaletxe aurrean. Hasieran lagun gutxi batzuk elkarretaratzen ziren, baina azken aldian gero eta pentsiodun gehiagok hurreratu dira.

pentsiodunek: “Gaur egun, erretiratuok populazioaren zati oso garrantzitsua osatzen dugu, eta ez dago behar adina gazte belaunaldi erreleboa ziurtatzeko”. Horretaz gain, Manterolak gazteen soldata prekarioak salatzeko, “gazteek gaur egun kobratzen dituzten soldatekin ez dago bermezero kotizaziorik, ezta gure pentsioak ziurtatzeko Gizarte Segurantzari egin diezaioketen ekarpenik ere”. Gaur egun, Euskal Herriak Europako jaiotza tasa baxuenetarikoa duen lurraldeetako bat da, eta aldi berean, bere populazioa zaharkituena duenetako bat. Demografian piramide irauli gisa irudikatzen den egoera horrek jarraitzen badu, epe luzera Estatuko zein Erkidegoko administrazioek ezingo dute mantendu pentsio sistema. Gainera, bi pentsiodunek gogora ekarri dute kasu askotan zaharrak direla euren pentsioarekin langabezian dauden seme-alabak edo bilobak ekonomikoki lagundu behar izaten dituztenak.

Horregatik, Dorrnsorok argudiatu du aldi baterako edozein “itxurazko” irtenbide baino, beharrezkoagoa dela sokeneko aldaketa: “Gaur egun, inoiz baino premiazkoagoa da lanaren eta aberastasunaren banaketaz hitz egiten hastea, gure oihuak Espainiako Gobernuaren aurka doaz, oraingoz, baina badakigu kapitalismoaren etengabeko logika produktibista dela arazo larriena, beharrezkoa da aldaketa handi bat”.

Emakumeak are larriago

Pentsiodunen egoera orokorrean larria da, baina emakume erretiratuengan jartzen baldin badugu begirada, esan de-



zakegu horiena are larriagoa da. Izan ere, emakume pentsiodunen % 55ek gutxieneko soldataren azpiko pentsioa jasotzen du; gizonezkoen ehunekoak, berriz, % 17an kobratzen da. Dorrnsoro argi mintzo da emakume horien egoeraren inguruan: “Gehienetan, emakumezkoak izan gara lan marjinalak egin ditugunak, eta, gainera, horiei etxeko lan ez ordainduak gehitu behar zaizkie. Horren ondorioz, sistemak soilik lan produktiboak hartzen dituzenez kontuan, pentsioen zenbatekoa kalkulatzeko emakumeon egoera gizonezkoena baino askoz ere okerragoa da”. Alargunen kasuan, gainera, egoera are larriagoa bihurtzen da, horiek senarraren prestazioaren erdia baino ez baitute jasotzen. “Alargun asko ezagutzen ditut neguan arratsaldea jubilatuene egoitzan igaro ondoren etxera joan eta zuzenean ohera joan behar dutenak, euren pentsioarekin ezin dutelako berogailua piztu etxea berotzeko”, gehitu du Dorrnsorok, pobrezia energetikoaren auziari erreferentzia eginez.



Egoera latz horren aurrean, bi pentsiodunek uste dute “sistemak saldu” nahi dien irtenbidea pentsio pribatuko funtsak irekitzea dela. “Pentsio publikoak agortzen ari dira diru publikoa gaizki kudeatzeagatik; beraz, irtenbidea pentsio pribatuak direla esatea lotsagabekeria hutsa iruditzen zait. Moralki eta etikoki uste dut pentsio sistema publiko baten alde borrokatu behar dugula”, azpimarratu du Dorronsorok. Bide horretan, pentsiodunen hainbat elkartetan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen dutela gogorazati dute bi pentsiodunek. Hala ere, kopuru hori ez dute inolako “luxutzat” jotzen, bizitzeko gutxieneko soil batez hitz egiten ari direla nabarmentzen baitute. Gainera, nabarmendu dute 1.080 euroko gutxieneko pentsioaz hitz egiten ari badira, pentsiodunen gehiengo zabal batek kopuru horretatik beherako pentsioak jasotzen dituztelako dela.

Manterolak eta Dorronsorok argi dute pulsu luze eta gogor bati baino ez diotela ekin. Izan ere, bi aurkari gogor dauzkate aurrealdean: Espainiako




X. Manterola:
“Borroka honetan ez dugu esperantza galduko, jendea adoretu eta kementsu ikusten dut protestetan”

Gobernua eta horri defizitaren muga jarri eskuak lotzen dizkion Europar Batasuneko erakunde politikoak. “Argi dugu gu baino etsai askoz ere handiago eta boteretsuago baten aurka ari garela borrokan, baina ez dugu esperantza galdu behar, kontzentrazioetan ikusten dugun jendearen aurpegian kemena eta adorea nabaritzen dut eta”, ohartarazi du Manterolak. Borrokarako grina horren isla dira martxoaren 17an Hego Euskal Herriko hirietan pentsio duinen alde manifestazioetan atera ziren milaka pertsonak. Gainera, mobilizazio data garrantzitsu hori igaro ostean ere, pentsiodunek astelehenero udaletxeen aurrean kontzentratzen jarraitu dute.

Borroka honen etorkizunari begira, bi pentsiodunek dei garbi bat egin nahi izan diete bai gazteei, bai borrokan dabiltzan beste sektore batzuei: “Uste dugu langileek, emakume feministek, etorkinek eta bereziki aurrealdean etorkizun beltza duten gazteek gure borroka bera konpartitzen dutela; beraz, haiei ere gurekin borroka bartzeko deia egin nahi genieke”. ■



Hertz klinika berria
Zumaian,
Ardantzabide auzoan



ANE IBARRETXE hertz klinika
Ardantzabide, 3 behea

www.aneibarretxe.com · info@aneibarretxe.com
943-54 35 70 · 688 73 38 56



APIRILAK 6-9 // 13-15

ZUMAIA



Zumaiaagenda



Zumaiaiko Udala

BEHEKO PLAZA

Jatetxea erretegia
Restaurante asador

BIDAIA MUNDUKO ZAPOREETARA

BEHEKO PLAZA JATETXEKO ARDURA HARTU ZUTEN ANDONI TXINTXILLA ETA ANNE AGIRREK DUELA ZAZPI URTE. TRADIZIOA ETA MODERNITATEA UZTARTUZ, BIDE OPAROA EGIN DUTE. ORAIN, GASTRONOMIAKO TENDENTZIA ETA JOERA BERRIEI KASU EGINEZ, MUNDUKO ZAPOREAK DASTATZEKO AUKERA ESKAINIKO DUTE; BETIERE, TRADIZIOA ETA BERTAKO SUKALDARITZA AHAZTU GABE. HORI GUZTIA, SANTELMOEN ONDOREN.

SLOW FOOD EDO ZERO KILOMETROKO SUKALDEA

Behoko Plaza erretegiaren oinarrizko filosofia da bertako produktuekin lan egitea. Horri deitzen zaio, hain zuzen ere, zero kilometroko sukaldeak. “Lokal honetan hasieratik eman diogu garrantzia janariari, eta gure sukaldeak eboluzionatu egin du”, aipatu dute. Bide horretan, ekoizleekin duten harremana oso estua da. Besteak beste, nekazaritza ekologikoa lantzen duten bi hornitzaile dituzte. “Guk aukeratzen ditugu haziak, beraiek landatzen dituzte eta horiek gure produktuak dira. Hau da, eskusiboki guretzat izango diren produktuak ekoizten dituzte”, azpimarratu dute. Jasangarria dena elaboratzea eta kalitatea bermatzea dira helburu nagusiak.

ITSAS USAINEN MENU EKOLOGIKOA

Sukaldaritza ekologikoaren eta osasuntsuaren aldeko apustua egin dute jatetxeko arduradunek. “Jaten duguna gara, eta garrantzitsua da jakitea zer den eta non eta noiz ekoizten den jaten duguna”. Hala, ekologikoaren aldeko linea berri bat ezarri dute jatetxean, eta, bide horretan, menu ekologikoa prestatu dute. “Eguneko eta asteburuko menuez gain, beste bi menu eskaintzen ditugu: flysch eta txuleta menua. Orain, begetariano-ekologikotik joango den beste bat, hirugarrena, ipiniko dugu”. Menu horretan, esaterako, itsas belarrak edo algak sartuko dituzte, besteak beste. “Ez dugu nekazaritzako edo baratzeako produktuetara mugatu nahi. Algetatik, batez ere, *codium*arekin egingo dugu lan, hemen daukagulako”.





MUNDUKO ZAPOREAK ETXETIK GERTU

Eguerdietan menuekin egingo dute lan, baina gauetarako azken urteetako tendentzietara joko dute. “Pertsonen kultura gastronomikoa aldatzen ari da. Iruditzen zaigu gauean beste joera batzuk daudela, eta horietako bat da modu informalean jatea. Gu ere zerbait berria aurkezteko gogoz gaude”.

Abanikoa irekitzeko asmoz, gauetan, ohiko menuz gain, plater edo mokaduak emango dituzte. “Sekzio honetan munduko zaporeetan barrena bidaiatu nahi dugu, eta, horretarako, besteak beste, Afrika, Hego Amerika eta Japoniako sukaldeak nahasiko ditugu. Mokadurako ohikoak diren platerak sartuko dira, baina besteekin gure identitatea lortu nahi dugu”.

Italiako sukaldeak ere hartuko du protagonismoa, eta pare bat pizza egongo dira. “Konbentzionaletik atera eta elementu eta produktu ezberdinekin jolastu nahi dugu. Adibidez, ohikoak ez diren arrainekin lan egin, *fish & chip* berri bat egin, olagarro txistorra hobetu...”.

TRADIZIOA ETA PARRILA

Tendentzia eta joera berrien aldeko apustu garrantzitsua egingo dute, baina sukaldaritza tradizionala ez dute alde batera utziko. “Ez dugu inor beldurtu nahi, eta sukaldaritza tradizionalan ere lan egingo dugu. Parrila erretetik motorra da, eta protagonismoa izaten jarraituko du. Haragiak eta arrainak erretzeaz gain, barazkiak ere egingo ditugu, orain arte bezalaxe”.

TEKNIKA ETA TRESNA BERRIAK

Plater sofistikatuak, fusioek eta berritzaileek azken teknikak ezagutzea exijitzen dute. Horietako bat *sous vide* izenekoa da. Produktua hutsean gordetzen da, eta ura duen labe moduko batean sartzen da tenperatura baxuan. “Teknika honen bidez, janariaren propietateak bertan gordetzen dira eta oso egokia da barazkiak, haragiak eta arrainak egiteko. Duela bi urtetik erabiltzen dugu teknika hori, eta sukaldaritza tradizionalan ere aplikatu daiteke. Janariari balio nutrizionala ematea da garrantzitsuen”.

Puntako tresneria daukate Beheko Plaza erretetik sukaldetan, eta *sous vide* teknika gauzatzeko makinaz gain, janari ke-tua lortzeko beste bat ere eskuratu dute. “Horrek, produktuak ketzeaz gain, deshidratatzeko aukera ere ematen du. Guztia era profesional eta ezberdinean”.

Urte hauetan guztietan etengabe prestatzen jarraitu du Txin-txillak. Besteak beste, Michelin izarra duen sukaldari batekin eta parrilan aditua den beste pertsona batekin ibili da. “Prestatzen aritu naiz urte hauetan. Autodidakta ere banaiz, eta irakurketa eta proba asko egin ditut aurkeztuko dudana lortu arte”. ■

Beheko Plaza
Erreteria Jatetxea
Eusebio Gurrutxaga Plaza

943 861 700 / 688 658 240
behekoplaza@gmail.com
www.behekoplaza.com

BEHEKO PLAZA

Jatetxea erreteria
Restaurante asador



BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantzialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumai tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumai (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mendaro marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

BALEIKE



Garaa

Carlos Cirfero - Anhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 81

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

Itsasoa eskala txikian

Jose Cruz Agirrezabalagak bost urterekin egin zuen bere lehen ontzitxoa, eta orain galeoien, arrantza ontzien eta zama ontzien maketak egiten ditu San Telmo

kalean duen tailerrean. Ontzi bakoitzari behar duen denbora ematen dio, sei hilabete izan, edo hiru urte izan. Afizioa baino, bizioa dela dio irribarretsu.

IRUDITAN



Taberna berritu aurretik, hainbat urtez egon zen zintzilik *Sardinero* izeneko zama ontzi baten koadroa Justan. Margo horren kopia bat du Jose Cruzek tailerreko lan mahaiaren aurrean. “Argazkia ikusi eta badakit ontziak zer forma eta zer egestura izango duen”, dio. Azken asteetan, edo, hobeto esanda, azken hilabeteetan egindako lanaren emaitza mahai gainean du. Zink metalarekin egindako zama ontziaren maketa oso aurreratuta du jada. Lehenbizi, okumearekin edo egurrarekin modelo bat prestatzen du, eta behin hura amaituta hasten da maketarekin. Pieza guztiak eskuz egiten ditu, egurrarekin, metalarekin edo ganadu hezurrekin, beharraren edo maketak izango dituen ezaugarrien arabera. *Sardinero*rako egin dituen pieza txikiak erakutsi dizkigu: aingurak, kateak, armarioak... Milimetro gutxiko miniaturazko armarioari atek zabaltzen zaizkiola ikustean pentsa edo imajina daiteke zenbat ordu pasa dituen pieza txiki horiek egiten. “Pazientzia baino gehiago, eskua behar da”, dio.

Maiatzean beteko ditu 68 urte Jose Cruzek eta, berak dioen bezala, bizitza osoa darama ontzien maketak egiten. Lehen ontzitxo bost urterekin egin zuela dio. “Sutarako egurra ekarri zuten behin etxera, zati bat hartu nuen eta harekin egin nuen lehen ontzitxo”. Maketa txiki haiek lagunei ematen zizkiela dio. “Orain gutxi lagun bati galdetu nion ea eman nion ontzitxo oraindik gordeta zuen. Ikusi nahi nuen ea txikitako lan haiek zer forma zuten”.





Hasieran, arotz egin zuen lan, eta gero Mendiaraiz enpresan sartu zen. Orain erretiroa hartuta dago. Lanean ibili zen denboran ere aritu da maketak egiten. “Afizioa baino gehiago bizioa da”, dio. Egunero bizpahiru ordu ematen dizkio zaletasunari. “Etxe azpian dut tailerra. Goizetan beste egin-kizun batzuk ditut, biloba eskolara eramatea, adibidez. Baina, arratsaldetan 5ak aldera jaisten naiz eta hor egoten naiz ontziekin lanean”. Galdetuta ea zenbat denbora behar izaten duen maketa bakoitza bukatzeko, hasperen bat atera zaio. “Bakoitzak behar duena. Batzuk sei hilabetetan bukatzen ditut, baina beste horri hiru urte eman nizkion”, dio bitrina baten barruan gordeta duen galeoiaren maketari begira.

Euskal kostaldeko eliza askotan sabaitik zintzilikatutako ontziak aurki daitezke. Jose Cruzek San Pedro parrokiarako egin zuen galeoi horren maketa. “Lehen ere izan zen ontzi bat koroaren gainean zintzilik, *exvoto* moduan emandakoa. Baina norbaitek lapurtu egin zuen. Gero, beste ontzi bat jarri zuten, baina ez zen gustukoa izan. Galeoi hau parrokiarako egin nuen, baina zenbait arrazoi direla medio, azkenean ez zuten jarri. Etxean izan dut denbora askoan, eta orain tailerrera jaitsi dut”.

Galeoiaz gain, beste maketa batzuk ditu gordeta tailerlean: *Telmo Deun* trainerua, Zumaiako azken arrantza ontzia izan zen *Glorioso San Telmo*, edota gerrako ontzi bat, besteak beste. Koaderno txiki batean idatzita du urte hauetan egindako





maketen zerrenda. Horietatik gutxi batzuk dira enkargatu-takoak. “Berez, ez dut enkargurik hartzen, baina Zumaia-rekin lotuta badaude, orduan bai. ‘Rubio [bere izengoitia], Andre Marirako ontzi bat egingo al duk?’, galdetu zidaten behin, eta nik, noski, baietz esan nien. Zumaia-rako badira, bai, egingo ditut”. Enkarguetako bat traineru baten maketa izan zela dio. “Norvegiako herri batekin elkartruke bat egin behar zuten eta *Telmo Deunen* maketa bat egitea eskatu zidaten, herri hartako alkateari emateko”. Liburu batean gordezten duen argazki baten ikus daiteke ekitaldia.

Herrira begira egindako beste ontzi bat Arritokietako Andre Mariko ermitan zintzilik dagoena da. “Hiru ermitatan ontzi bana jartzeko proposamena nuen, Arritokietan, San Lorenten eta San Telmon. Arritokietakoa jarrita dago, San Lorenterako ere egin nuen bat eta San Telmorako banuen ideia bat: Bermeo eta Matxixako ikus daitezke bertatik, eta han [1912an] izandako galernan hildakoen ohoretan, garai hartako ontzien maketa bat egitea pentsatu nuen. Baina, ez zen posible izan”. San Lorenterako egindakoa, berriz, kendu egin zuen, ermitaren jabeek ospakizunak haren barruan egitea galarazi zutenean. Maketa hori orain Santa Klaran dagoela dio. “Ontzia Santa Klarako Miguel Angel Mancisodorri asko gustatu zitzaion. Ermitatik kendu nuenean telefonoz deitu nion eta galdetu nion ea interesatzen zitzaion. Han dago zintzilik, ermita izan zen eraikin zaharrea”.

Sardínero amaitzen duenean tamaina handiagoko beste ontzi batekin hasiko da lanean, tailerrean gordetzen duen *Ipaña* txaluparekin, hain zuzen ere. “Kanpoaldeko zuntzean aritu naiz lanean, eta orain barrualdeko egurra aldatuko dut. Botatzeak pena ematen zidan, eta berritu egingo dut. Itsasora aterako naizen? Ez, oinordekoentzat izango da”. ■



Haritz **JIMENEZ** | **BIOKIMIKARIA****biodonosti**

“Parkinsona ezezaguna da oraindik gizartearentzat”

Haritz Jimenez biokimikaria da, eta duela bost urtetik hona, parkinson gaixotasuna ikertzen ibili da Biodonostia Institutuan. Ezjakintasunetik abiatuz hasi zuen bere ikerketa lerroa, eta urte hauetan guztietan, gaixotasunaren zirrikituek bereganatu egin dute. Konplexua izanagatik, pasioz aritu da lanean, eta laster tesia aurkeztuko du Euskal Herriko Unibertsitatean.



TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



Txikitatik datorkio biologiarako zaletasuna Haritz Jimenezi, eta hori horrela, karrera hori ikasteko hautua egin zuen. Ikasketek, baina, ez zuten asebate, eta hiru urte egin ostean, biokimikara egin zuen jauzi. Hala, bigarren zikloa osatuta, biokimikan lizentziatu zen, azkenean.

Ikasten ari zela, animalia genetikako unibertsitateko laborategian sartu zen lanean. Oso lan interesgarria iruditu zitzaion, baina azken urteetan bioinformatika munduan espezializatu ziren. “Laginekin egiten genuen lan hasieran, baina gure eginkizunaren % 99 ordenagailuko lana bihurtu zen azken denboraldian, eta hori ez zitzaidan asko gustatzen”, aitortu du.

Lizentziatura poltsikoan zuela, sakontzeko eta ikertzeko bide berrien bila, Biologia Molekularreko eta Biomedikuntzako Masterra egin zuen. Hain zuzen, Masterreko azken lana unibertsitateko laborategian egin zuen, eta han zebilela, Biodonostiako lan eskaintza ikusi zuen. “Tesia bertan egiteko lan eskaintza zen. Ordura arte egindakotik oso ezberdina, baina izena ematea pentsatu nuen. Banekin teknika berriak ikasteko aukera izango nuela eta taldeak finantzazioa zuela”, esan du.

Hautagaietatik aukeratu egin zuten, eta, hala, 2012ko urrian hasi zen Biodonostian lanean. Doktoretza, berriz, soilik parkinson gaixotasuna ikertzen duen lantalde batean egin du Jimenezek. “Zortea izan dut. Gure ikertzaile taldeburua medikua da, eta ikerketari dagokionez, beti izan ditu irekita bai alde klinikoa, baita oinarrizkoa ere”. Arlo klinikoan, medikuek gaixoeekin egiten dituzten ikerketak eta probak sartzen dira; oinarrizkoan, berriz, biologia zelularren eta molekularren inguruan laborategian aritzen diren adituek egiten dituztenak.



Dardara baino askoz gehiago

Zer da Parkinsonen gaixotasuna? “Dardara duen edadeko jendea da askoren erantzuna. Hori bada hein handi batean, baina gaixotasun konplexuagoa da. Horregatik, parkinsona ezezaguna da oraindik gizartearentzat”, nabarmendu du.

Gaixoen arazo nagusia epe ertainekoa da, eta medikamenturik ez badute hartzen, mugitu ezinik gelditzen dira. “Ez da ez dutelako mugitu nahi, baizik eta oso mantso mugitzen dira. Gainera, ondorio gehiago ere badituzte: depresioa, komunetik pasatzeko arazoak, insomnia, demenzia kasu batzuetan... Beraz, parkinsonak ez ditu soilik arazo fisikoak azaleratzen, baita kognitiboak ere”.

Non jaiotzen da parkinsona? Dopamina deitutako neurotransmisorean. Horrek bi modu nagusitan hartzen du parte garunean: batetik, zirkuitu motorrean, eta hori mugimenduen kontrol finerako beharrezkoa da; bestetik, errekonpentsa zirkuituan, hau da, gustuko gauzak eginarazten duenean. “Ez dakigu zergatik, baina zirkuitu motorra kontrolatzen duten neuronak hiltzen direnean hasten da parkinson gaixotasuna. Dopaminaren kantitatea murrizten da garunean, eta horrek eragiten du gaixoa ezin mugitzea”, kontatu du.

Ohiko tratamendua izaten da dopamina maila igoko duten pilula batzuk hartzea. Baina horrek epe luzera beste arazo batzuk sortzen ditu. Albo ondorioetako batzuk motorrak edo ez-motorrak izan daitezke. “Motorren barnean daude diskinesia deiturikoak, hau da, mugimendu inkontrolatuak; beste albo ondorio garrantzitsu bat da inpulsitate kontrolaren desoreka, eta hori izan da nire ikerketa lerroa”.

Pilula horiek hartzen dituzten pazienteek hobeto egiten dute zirkuitu motorrearen funtzionamendua, baina, beste zirkuituan aldaketak sortzen dira. “Adibidez, plazerra sortu behar ez luketen jarrerak plazerra sortzea. Horrek ekartzen du, besteak beste, sexuzale edo jokozale bihurtzea halakoa

inoiz izan ez den pertsona bat. Arazo hau gaixoen % 15ean, behintzat, ematen da, nahiz eta oso-oso muturrekoak, zorionez, ez diren gehiegi”.

Lehen aipatu bezala, dardarekin lotzen da parkinsona, baina zerikusia duen arren, ez da sintoma bakarra. Jimenezek kontatu duenez, usaimena galtzea ere beste ezaugarri bereizgarrietako bat izan daiteke, adibidez. “Dardara da, esan bezala, gaixotasun honen ikur esanguratsuen eta ezagunen, baina ez zaie paziente guztiei gertatzen. Hasieran ez dutenek normalean garatuko dute, baina beste batzuek ez dute inoiz izango”, baieztatu du.

Orain arte publikatu diren ikerketek baieztatu dute generoak ez duela garrantzirik parkinsona izateko garaian. Baina adinak

beste erreferentzia bat ematen du. “60-65 urteko pertsonen % 1ek izaten du gaixotasuna, eta 80 urtetik aurrerakoan % 4k. Beraz, argi dago adinak garrantzia duela”. Gazte parkinsona deituriko kasu batzuk ere ematen dira. Horiek, normalean, 30-50 urte bitartean diagnostikatzen diren kasuak dira, nahiz eta lehenago ere eman daitezkeen kasu batzuetan. Horietako bat Michael J. Fox aktore ezagunarena izan zen. “32 urterekin aurkitu zioten, baina parkinson gaixotasun mota berezi bat du, jatorri genetikokoa. Gaur egun, aktore horrek sortu zuen fundazioa da gaixotasunaren ikerketarako diru gehien ematen duen entitate pribatua”.

Euskal mutazioa

Gaixotasuna tratatzeko bi medikamentu nagusi daude: levodopa eta agonista dopaminerjikoak izenekoak. Lehenengo farmakoa nagusiki diskinesia eta mugimendu inkontrolatuei asoziatzen zaie epe luzera; bigarren multzokoak, berriz, inpulsibitateari, nagusiki. “Gaur egun, gaixotasun honek ez zaitu hiltzen. Medikamentuei esker, gehienguan, bizimodu normala egiten dute gaixoek. Hori bai, beste arazo batzuk daude, bai medikamentuek sortutakoak, bai gaixotasunaren garapenak eragindakoak”. Depresioa da horietako bat. Kasu horretan, dopaminak bi zirkuituetan eragiten du. “Batez ere zirkuitu motorrean du eragina, baina errekonpentsa zirkuituan ere eman daitezke aldaketak eta horrek depresioa bezalako sintomak sor ditzake. Robbin Williams aktoreak, adibidez,

parkinsonaren barietate agresibo samar bat zuen eta bere buruaz beste egin zuen. Sufritzen zuen parkinson motak delirio bisualak eragiten zizkion, eta, gainera, depresio arazo larriak omen zeuzkan”.

Parkinsonaren jatorria ia beti ezezaguna da. “Kasuen % 90ean oraindik ez dakigu zergatik gertatzen den. Bestal-

“Parkinsonak ez ditu soilik arazo fisikoak azaleratzen, baita kognitiboak ere”

de, gainerako % 10ak genetika izaten du oinarri”, aitortu du. Azken horretan badago euskaldunoi gertutik tokatzen zaigun kontu bat. Euskal Herrian, eta bereziki Urola bailaran, euskal mutazioa deitzen den mutazio konkretu bat dago. Hain zuzen, Jimenezek lan egin duen taldeak identifikatu zuen lehendabizikoz duela ia hogei urte. “Gen horri *dardarina* izena jarri zioten (dardaragatik), eta geroago jakin da gaixotasunaren jatorria genetikoaren kasu gehienetan mundu mailan, *dardarinak* jasaten dituen mutazioengatik dela”. Hala ere, beldurtzeko arrazoirik ez du eman nahi, eta baieztatu du ez dugula munduko beste edozein txokotan baino aukera gehiago gaixotasuna garatzeko. “Beste datu kurioso bat emango dut: hein txiki batean erretzailea izatea edo kafe kontsumitzaile nahiko handia izatea babesgarria da parkinsonaren aurrean. Hori bai: erretzailea izateak beste ondorio kaltegarri asko ditu, noski”, jarraitu du.

Euskal Herrian,
eta bereziki Urola
bailaran, euskal
mutazioa deitzen
den mutazio
konkretu bat dago

Ikerketa lerroa

Urte hauetan guztietan Jimenezen ikerketa lerroa izan da inpulsiitate kontrolaren desorekan markatzaileak (molekularrak, zelularrak eta jarrerari dagozkionak) bilatzea. “Nire lan ildoak galdera bati erantzuna bilatzea izan da: ‘zergatik daude inpulsiitatea garatzen duten gaixoak?’. Izan ere, farmakoek dopamina maila haztea dakarte, baina horrek, kasu batzuetan, inpulsiitatea sortzea”, esan du. Beraz, Jimenezen helburua izan da jakitea zergatik paziente batzuek garatzen duten albo ondorio hori, eta zer ezaugarri dituzten ondorio hori garatuko dituzten gaixoek garatzen ez dutenekiko.

Pilula bidezko tratamendua da ohikoena, baina kirurgiaren aukera ere hor dago. Kasu horretan, pazientearen garunean elektrodo batzuk sartzen dira eta horrek eragiten du pazienteak behar duen medikamentu kantitatea jaitea, hau da, farmako gutxiagorekin sintomak ongi kontrolatzea, eta farmakoen

Jimenezen ikerketa
lerroa izan da
inpulsiitate
kontrolaren
desorekan
markatzaileak
bilatzea



Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 384

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solinu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo 12
Tel: 943 86 07 60

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelos Soratu, 2
20750 ZUMAIK
#Gipakoa
tel. 943 143 089
fax: 943 430 657

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

KABI Paketa Eteozarrata, 18
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

albo efektuak murriztea. “Pazientek oso konprometituta daude ikerketarekin. Hemen, Euskal Herrian, zorionez, jendea oso kontzientziatuta dago eta hori eskertzekoa da. Bide batez, aprobetxatu nahi dut animatzeko ikerketan parte hartu nahi duen edozein, eta kontaktuan jartzeko”, gaineratu du.

Nola dago ikerketa mundua?

Diziplina anitzeko talde batean egin du lan Jimenezek (partaide izan den oinarrizko arloko taldeaz gain, ospitaleko profesionalaz osatua: medikuak, erizainak, neuropsikologoak...), eta adierazi du zortea izan duela. “Arlo askotako pertsonak osatu dugu eta horrek ikerketan laguntzeaz gain, guri ere besteen eremuak ezagutzeko eta ulertzeko balio izan digu”, aipatu du.

Oinarrizko arloari dagokionez, bospasei pertsonaz osatutako talde batean aritu da lanean: ikertzaile nagusiaren figuraz gain, doktoretza ondoko pertsona bat, tesia egiten ari ziren lau eta laborategiko teknikari bat. Ikertzaile nagusiak, baina, Iruñean lanpostua lortu du, eta oinarrizko ikerketako talde osoa hara joan da. “Orain, tesia amaitzen nabil etxetik, eta aurkeztu eta gero ikusiko dut zer egingo dudan”, aipatu du.

Ikerketa mundua, gaur egun, ez da oparoa gazte askorentzat. “Beken menpe egon behar duzu, eta, gainera, normalean, diru kantitate txikiak izaten dira”. Jimenezek aipatu duenez, ez da berdina izaten ikerketa hemen edo atzerrian garatzea. “Kanpoan baliabide gehiago daude. Nire kasuan, hiru hilabeteko estantzia bat egin nuen Bordelen, eta hango lan baldintzak hobekak ziren”.

Euskal Herrian, Katalunian eta Madrilan ikerketaren egoera ez dela hain txarra ere gaineratu du. Baina, hala eta guztiz ere, ez da nahikoa. “Aurten, Ikerbasque programan 20 beka eman direla uste dut. Eta beka horietan diziplina guztiak sartzen dira; beraz, jende askorekin lehiatzen zara. Gainera, plaza guztiak denon artean banatzen dira; hau da, tesia hemen garatu dutenen artean, atzerrian egin eta bueltatu nahi dutenen artean, hona etorri nahi duten atzerriarren artean...”, jarraitu du.

Tesi osteko ikerketa edo proiektuak atzerrian egitea normalean ondo dago baloratua bekak lortzeko garaian, baina Jimenez ez dago oso ados horrekin. “Lehenago edo geroago sistema berak derrigortzen zaitu atzerrira joatera, baina zer gertatzen da joan nahi ez dutenekin edo ezin direnekin? Eta joatekotan, zer baldintzatan? Beraz, kontua ez da soilik joatea, gauza da inork ez dizula ziurtatzen bueltatzea, kasu hauetan ere lehia handia dagoelako”.

Tesiari azken ukituak ematen ari da orain, eta zenbait ondorio aurreratu dizkigu. Adibidez, diagnostiko garaian dopamina gehiago faltatzeak ematen du inpulsibitatea garatzeko arrisku handiagoa dakarrela. Bide horretan, zirkuitu motorrak ere eragina izan dezake. “Ez da iguala dopamina forma berean galtzea eremu guztietan, edo egotea deskompentsazioa zona ezberdinen artean. Irudi analisi bat egin dugu eta emaitzen zain nago. Ea lortzen dugun identifikatzea zerbait esaten duena eremu baten gehiegizko edo gutxieneko aktibazioak inpulsibitatea sortuko duen edo ez”.

Urte hauetan guztietan hainbat esperimentu egin dituzte, eta guztiak PubMed izeneko datu basean aurki daitezke. “Gure taldearen lanak bertan indexatuta dauden aldizkarietan daude publikatuta, nahi duenarentzat eskuragarri”. ■

“Arlo askotako pertsonak osatu dugu taldea, eta horrek ikerketan laguntzeaz gain, guri ere besteen eremuak ezagutzeko eta ulertzeko balio izan digu”



LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



CROISSANTERIA

pizak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a

App Store Google Play

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

BALEIKE

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

836 887 812 (Zumai) 809 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia Tel.: 943 861 363 zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C 20820 - Itziar-Deba Tel.: 943 606 291 noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA

OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

OLIDEN arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
luz@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Fotakak
Telatuak
Etxebizitzak
(Sukaldek, banuziak)
Industrian mantentzeak
Mota gutxiakko igelberotza lanak

Etxebizitzaren inspezio teknikoa (ITE)
Zertifikatu energetikoa
Fotobaten diseinua eta aholkularitza
Etxebizitzaren barne diseinua
Mota gutxiakoko proiektuak

OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 88 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beobide Ibiltoxia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

La Primavera
pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitortekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloa)
Saltxitzak, ollaskook...
Garagardok aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com


Graxian **GALARRAGA** | ERREKADISTA (ERRETIRATUA)

Bizitza **enkarguei** **lotuta**

ERRETIRATUA

Graxian Galarraga (Zumaia, 1954) 41 urtez aritu da errekadista lanetan, 1976an aitaren negozioa hartu zuenetik. Orain beste garai bateko, beste mundu bateko, ofizioa irudituko zaigu, baina, orduan, hiriburura joatea hain erraza ez zenean, denetik ekartzen zuten errekadistek herrira: arrautzak, kafea, arropa, karnetak... Graxian pasa den urtearen amaieran erretiratu zen. Ofizio honen inguruan eta hamarkada hauetan bizi izandakoaz aritu zaigu hizketan.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA





Negozioa aitarena zen, eta gero nirea izatera pasa zen. 18 urte nituela atera nuen gidatzeko baimena eta soldaduska amaitu ondoren hartu nuen negozioa. 22 urte nituen orduan, eta 63 urterekin hartu dut erretiroa. 41 urte ibili naiz lan honetan, eta aitak beste 20 bat egingo zituen. Guztira, 60 bat urtean aritu gara negozio honetan.

Ez dakit ziur aita noiz hasi zen errekadista lanetan, baina ni jaio baino zertxobait lehenago izango zen. Aurretik aseguru saltzailea izan zen, eta Yeregui Hermanosen ere egin zuen lan. Hasieran, joan-etorriak trenean egiten zituen, Zumaia eta Donostia artean. Horrela ibili zen 15 urte inguru, lehen furgoneta erosi zuen arte. Nire lehengusu batek, Jesus Mari Merinok, soldaduska amaitu zuenean erosi zuen aitak furgoneta, eta hura hartu zuen txofer.

Aitarekin batera beste errekadista batzuk hasi ziren garai berean. Zarautzen bazen bat, baita beste bat Deban ere, Aldamar izenekoa; Azpeitiko Campos orduan ez bazen hasi, ez zen urruti ibiliko. Zumarragan eta Beasainen ere baziren. Denak trenean ibiltzen ziren eta egunero 15 bat errekadista juntatzen ziren Donostian. Zumaian bazen beste errekadista bat, Asentxio Linazisoro, baina hark Zumaia eta Bilbo arteko lanak egiten zituen.

Denbora tarte honetan, denetik egin dugu. Altzariak ekarri, dokumentazioa ekarri..., denetik. Arrautzak, txanpiñoiak, halako gauzak ere ekartzen zituen aitak. Kafea ere bai, Donostiatik hemengo taberna batzuentzat. Orain karneta momentuan ematen dute, baina bizitza osoan ibili gara gu karnetak, pasaporteak edo gidatzeko baimenak ekartzen. Enpresen tramiteak ere egiten genituen: altak eta bajak eman, Merkataritza Ganberara paperak eraman, Industria Sailera... Horrelako agiriak eramaten eta ekartzen aritu gara. Aurrekoan,



Hasiera batean tenean ekartzen zituzten enkarguak Donostiatik. Gero, estazioko karro bat erabiltzen zuten paketeak eta beste gaiak herrira ekartzeko. Argazkian, behean, Graxian Galarraga aita.


Lagun Artea egon nintzen, despeditzen. Nik ekarriko nuen, seguruenek, lehen paketea Donostiatik Lagun Arteara; lehen tramitea ere gure bidez egingo zuten. Aitaren garaian Banco de Vizcayako dokumentazioa eramaten zuen, baita *La Voz de España*ko kronikak ere. Kadukatzen zirenean, Itsas Komandantziako balak ere geuk eramaten genituen Donostia-
ra, baita berriak ekarri ere. Lehen egiten genuen beste lan bat zen arropa ekar-
tzea. Hori oso normala zen. Aitari esa-
ten zioten, adibidez, igandean Donos-
tian izan zirela eta zapata polit batzuk
ikusituztela, eta ea ekarriko zituen.
Jantzi, ondo ez eta beste neurri bat be-
har bazuen, aldatu egiten zituen.

Gure basea Sorazuren denda zen, Sanjuaniturri aurrean. Aita sorazuta-
rren iloba zen, eta enkarguren bat ba-
zegoen, jendea dendara joaten zen. Ni
ikasle nahiko txarra nintzen, eta Aita laguntzen hasi nintzen. Enpresako Teknikoaren ikasketak egiten hasi nintzen, eta le-
hen urtearen ondoren, dudan nengo jarritu edo ez. Uda horretan Jesus Mari lehengusua oporretan zegoen, baita ni ere, eta aitak kolpe handi bat hartu zuen buruan. Ordurako askotan ibilita nengo enpresan, eta aitaren lekua hartu

nuen. Soldaduska 1976an amaitu nuen, eta ordutik bakarrik aritu naiz lan honetan.

Donostialdean egin dut gehienbat lan. Beti esan izan dut: ez dakit nire furgonetak zenbat kilometro egingo zituen, baina inoiz ez naiz joan Debara erre-
kadista; Azkoitira ere ez, eta Azpeitira
uste dut behin. Irunera, berriz, bizitza
osoan, agian, 15 aldiz joango nintzen,
eta Tolosara inoiz ere ez. Nire eremua
oso mugatuta zegoen: Andoain, Herna-
ni, Urnieta, Pasaia, zonalde hori. Garai
batean Itziarrera ere hasi nintzen joa-
ten, baina utzi egin nuen, ez nintzelako
heltzen. Eskualdean, gehienez, Zes-
toara, Iraetara, Aizarnabalera joango
nintzen. Bestela, beti, Donostiarantz:
Zarautz, Orio... eta beti errekadista la-
netan. Nik arau bat izan dut beti, eta
izan da bezero txikiak ere zaintzea. Be-
zero txiki batek ez dezala esan ez diodala zerbitzurik eman. Enpresa garrantzitsuekin egin dut lan: GKN, Lagun Artea, Bombas Azcue; Egurko eta Urpe ere bai, bere garaian. Hori-
ek bezero garrantzitsuak nituen. Baina inork ez zuen esango ez niola enkargurik egin enpresa handi batentzat lanean ari nintzelako.

“Inork ez zuen esango ez niola enkargurik egin enpresa handi batentzat lanean ari nintzelako”



denda:

Mendaro marinela, 1
tel.: 943 143 346

biltegia:

Jose M^a Korta Industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943 861 117
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

“Oraindik gauza batzuetarako behar dira errekadistak”

Ez mugatzea izan da nire politika. Garai batean oso itota egon nintzen Guascorentzat lan egiten. Renfeko trenera pake-teak eramaten nizkien, baina Zumaia oso berandu ateratzen nintzen, eta, askotan, Donostian, fakturatzeko ilara handiak izaten ziren. Tentazioa izan nuen arratsaldeetan lan horiek bakarrik hartzeko, gero beti larri ibiltzen nintzelako, baina ez nuen egin, eta eskerrak. Izena aldatu zuten batean, Dresser Rand izatera pasa zirenean, arduradun batek deitu zidan esanaz ni ez nintzela haien gogokoa, bazutela beste garraiolari bat, eta dena harekin egingo zutela. Hori beste inongo arrazoirik gabe. Beste lanak utzi izan banitu, lan txiki horiei muzin egin izan banie, ezer gabe geratuko nintzen. Hori pasa zaie enpresa bakarrekin lan egiten duten garraiolari askori. Ez dizute inongo arrazoirik emango; egun batetik bestera esango dizute “Hau bukatu da”. Enpresentzat ez gara ezinbestekoak, eta autonomoak bagara, orduan eta lotura txikiagoa.

60 urtez aritu gara goizez eta arratsaldez paketeak ekartzen. Aita Zumaiara 14:10ean iristen zen, eta gauetan 20:45ean. Adinean aurrera egin zuenean, ez zen arratsaldeetan joaten; Donostian zegoen batek egiten zizkion enkarguak. Lehen, larunbatetan ere lan egiten genuen. Lanean hasi nintzenean, 19:30-20:00ak aldera bukatzen nuen, baina azkenaldian 18:00-18:30ak aldera bukatu izan dut, eta ostiral arratsaldeetan ez naiz joan.

Gauzak aldatzen joan dira eta konpetentzia sartzen joan da. Guretzat konpetentzia oso handia Langarri enpresa izan da. Garraio enpresa bat da. Bazeuden gehiago, adibidez, La Guipuzcoana, orain DHL dena. Oso erraza zen furgoneta bat izanda lan honetan hastea; segituan emango zizuten lizentzia errekadista aritzeko. Furgoneta izatea iraultza izan zen guretzat. Ni hasi nintzenean paketeak uzteko bi leku edo zentro zeuden Donostian. Han paketeak hartu eta hona ekartzen genituen. Baina gauzak aldatzen joan ziren, eta dendari asko beraien dendatik pasatzeko eskatzen hasi ziren paketeak emateko. Gero, telefono mugikorrak agertu zirenean, bi zentro horiek itxi egin zituzten. Aldaketa handiak izan dira, eta Internet sartutakoan, lan asko galdu dugu.

Gero eta garraiolari gehiago dago, eta errekadista gutxik jarraitzen dute. Negozioa Zarauzko batek hartu dit, Inaxio Lopetegik. Lasaitua hartu dut; aurrez ere aritua da negozio honetan, eta ez diot ezer erakutsi behar izan. Zarauzko errekadista izateaz gain, Zumaia ere berak hartu du. Zarautzen bada beste errekadista bat, bi Tolosan eta Azpeitiko Camposek ere jarraitzen du; Debako Aldamar, berriz, gehiago da garraiolaria errekadista baino. Ez dut uste Donostiako erdigunean sartzen denik. Ofizioa galduko ote den? Ez, oraindik gauza batzuetarako behar dira errekadistak. Denda baterako materiala oraindik errekadista batek ekarriko dizu. Erretiratu arte Hizkuntza Eskolako matrikula pila bat eraman dut nik. Badaude oraindik gauzak zuzenean egin behar direnak. ■



“Korrika egitea irtenbide garrantzitsua izan da”

Jende askok esan izan dit ea nola nuen posible korrika egitea lanorduak amaitu eta gero. Batek baino gehiagok esan dit “Gaur lan gutxi egin duzu, hala bazabiltza!”, eta bati baino gehiagori erantzun diot berriro jaio beharko lukeela nik egiten dudana lana egin eta gero korrika egiteko! Korrika egitea irtenbide garrantzitsua izan da. Asregunetan bizpahirutan egiten nuen korrika. Denbora askorik ez nuen Ikastolako juntakoa eta zine klubeko kidea ere banintzelako. Gero, bai, larunbatetan eta igandeetan serio egiten nuen. Nire aurretik izan zen jendea korrika egiten zuena, baina, saltakarako kalean txandala janzen lehena izan nintzen.

Federatuta, lehen proba 15 urterekin egin nuen, eta azkena 55ekin. Interno izan nintzen La Sallen eta harekin atera nuen lehen fitxa. Eskolatik irteandakoan Atletico San Sebastianen sartu nintzen eta amaierara arte han egon nintzen. Hura izan da nire kluba. Oraindik segitzen dut, baina lasai, mantso-mantso. Korrika egitea oso garrantzitsua izan da da, psikologikoki erlaxatu egin nau.



Etxea eraberritzekotan?

Egongela eraberritzekotan?

Sukaldea eraberritzekotan?

Bainua
eraberritzekotan?

Logela eraberritzekotan?

SANTIAGO AUZOA, 12 ZUMAIA

WWW.BIYONA.NET TEL. 943 143 443

APRILIAZ
gozatu elkarteko establezimenduetan

ZUMAIA ELKARTEA
Markatutako elkarteak

Z E

CAJA RURAL

ZUMAIA MERKATARI OSTALARITZA ELKARTEA

Zumaiako Udala

APIRILA ETA MAIATZA

DEIALDIAK

Apirila 6-15

SANTELMOAK 2018!!

Maiatzeko larunbatetan

Maiatza Dantzan

Maiatzaren 25etik ekainaren

10era Geoparke astea

Maiatzaren 28 - ekainaren 3

Merkataritzaren astea

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Apirila 5-22

Xabier Mina "Itsas
aniztasuna: ezkutuko altxorra"

Maiatza 27 - ekaina 13

Txaro Arrazola

APIRILA

12, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: *The Disaster Artist*. Zuz.: James Franco

13, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa

22, igandea

12:00 Aita Marin haur antzerkia:
Kontukantari, Laenanarananja

26, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum *Lady Bird*. Zuz.: Greta Gerwig (JBA)

27, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen solasaldia: *Erljioa zientzien aurrean. Erronkak eta aukerak* (Joxe Arregi)

22:00 Aita Marin antzerkia: *Ergela*, Txalo

MAIATZA

6, igandea

12:00 Aita Marin haur antzerkia:
Ulisenen bidaia, Teatro Gorakada

9, asteazkena

19:00 Oxford aretoan hitzaldia:
Patrimonio industrial en Zumaia. La fábrica de cemento La Zumayana (Beatriz Herreras)

10, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: *The Party*. Zuz.: Sally Potter (JBA)

11, ostirala

19:00 Aita Marin familia antzerkia:
Izpiliku saisi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen. Cie. Hecho en casa

19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa

12, larunbata

20:00 Amaiaiko plazan Dardararen urteurreneko kontzertuak: *Arenna, Bide bakarra, Rodeo eta Blowing Soul*

16, asteazkena

19:00 Oxford aretoan hitzaldia: *Aizarnako lignitua eta Ibañarrietako tupa 'iraulika'-ren ekoizpenean.* (Aitziber Gorrotxategi)

18, ostirala

19:00 Alondegian ardo eta gazta dastaketa tailerra.

22:00 Aita Marin antzerkia: *Sherezade eta tipularen azalak*, Vaiven producciones

23, asteazkena

19:00 Oxford aretoan hitzaldia: *El Patrimonio Industrial. ¿Olvido, desconocimiento o desinterés?* (Victor Manuel Egia)

24, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: *Call Me by Your Name*. Zuz.: Luca Guadagnino (JBA)

26, larunbata

22:30 Ondartxon ZUMB kontzertua
Astindu eta Tik tara taldearekin



22, igandea

12:00 Aita Marin haur antzerkia:
Kontukantari, Laenanarananja



6, igandea

12:00 Aita Marin haur antzerkia:
Ulisenen bidaia, Teatro Gorakada



11, ostirala

19:00 Aita Marin familia antzerkia:
Izpiliku saisi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen. Cie. Hecho en casa



18, ostirala

22:00 Aita Marin antzerkia: *Sherezade eta tipularen azalak*, Vaiven producciones

Zalla

• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaaautoeskola@hotmail.com

BASADI 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943016125

Zumaia Hotela
*Jateketa
Kafetegia*

Ahal auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

www.eduoptika.com

RPS 18/16

BALEIKE

$$\text{Grad}^{\text{BATXI}} = \int_{16}^{18} 30 \cdot (\text{eus}^{++} + X + Hh) \text{ PR+KR}$$



Zumaiako Herri Eskola

BATXILERGOAREN

FORMULA PERFEKTUA

ZATOZTE ZUEN BIGARREN ETXERA

0,1urte eta Batxilergorako matrikulazioa: maiatzaren 2tik 14ra

